

Arabako Foru Aldundiak, lurraldeko eragile ekonomiko nagusiekin – Merkataritza Ganbera, SEA, UAGA, Aenkomer eta Elkargi – lankidetzan, web zerbitzu bat abiarazi du, hainbat administrazioek abian jarritako neurrietarako sarbidea errazteko, COVID-19k ETEetan eta autonomoetan eragindako krisiaren ondorioak arintzen laguntzeko.

'ayudasarabacovid19.eus' atariak informazioa bilatzeko sistema erraza eta eraginkorra du, bai eta administrazioek sustatutako eta kolektibo horietara berariaz bideratutako neurri eta arauen kudeaketa telematikorako lotura zuzena ere. ETEek, autonomoek, saltokiek, turismo- eta nekazaritza-elikagaien sektoreek eta abarrek informazio egituratua eta zehatza eskura dezakete haren bidez, Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Estatuko Gobernuak sustatutako laguntzei buruz, eta hainbat eragilek egindako jarduera gidak eta informazio interesgarria ere biltzen ditu.

Ekimena osatzeko, aholkularitza pertsonalizatuko zerbitzu bat eskaintzen da, webgunean bertan inprimaki baten bidez eskuragarri dagoena. Ekimenean parte hartzen duten eragile ekonomikoen talde teknikoko profesionalak garatuko dute aholkularitza hori, bai eta kuadrillen eta toki-garapeneko agentzien ekonomia, merkataritza eta turismoa sustatzeko zerbitzuetako eta Ekonomiaren Garapen eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo sailtako foru-zerbitzuetako profesionalak ere.

Sistemak ohiko funtzionalitateak ditu, hala nola berritasunen buletin batera harpidetzeko aukera, informazioa posta elektronikoz eguneratuz, ekimena sare sozialetan

La Diputación Foral de Álava, en colaboración con los principales agentes económicos del Territorio - Cámara de Comercio, SEA, UAGA, Aenkomer y Elkargi-, ha lanzado un servicio web cuyo objetivo es el de facilitar el acceso a las medidas puestas en marcha por las diversas administraciones para contribuir a paliar los efectos de la crisis provocada por el COVID-19 sobre las PYMEs y autónomos.

El portal 'ayudasarabacovid19.eus' cuenta con un sistema sencillo y efectivo para la búsqueda de información, además de enlace directo a la gestión telemática de las medidas y normas promovidas por las diversas administraciones y orientadas específicamente a estos colectivos. Las Pymes, autónomos, comercios, el sector turístico y agroalimentario, etc. pueden acceder a través de él a información estructurada y detallada sobre las ayudas promovidas por la Diputación Foral, el Gobierno Vasco, el Gobierno del Estado, e incluye también guías de actuación e información de interés elaboradas por diferentes agentes.-

La iniciativa se complementa con un servicio de asesoramiento personalizado, accesible vía un formulario en la propia web. Este asesoramiento será desarrollado por profesionales del equipo técnico de los agentes económicos participantes en la iniciativa, así como de los servicios de promoción económica, comercio y turismo de las Cuadrillas y Agencias de Desarrollo Local y de los servicios forales de los departamentos de Desarrollo Económico y de Empleo, Comercio y Turismo.

El sistema cuenta con las funcionalidades habituales, tales como la posibilidad de suscribirse a un boletín de novedades actualizando vía correo electrónico la información, enlaces para la difusión de la iniciativa en redes sociales, buzón para recoger sugerencias para la mejora del sistema, etc.

Guía empresarial ante el COVID-19

Toda la información sobre **ayudas para pymes y autónomos de Álava** en un solo lugar

zabaltzeko estekak, sistema hobetzeko
iradokizunak jasotzeko postontzia eta abar.

Foru Aldundiak, Merkataritza Ganberarekin batera (SEA, UAGA, Aenkomer eta Elkargi), horrela, enpresa txikiagoei eta kudeaketa-gaitasun txikiagoa dutenei lagundu nahi die eskura ditzaketan laguntzak identifikatzen, baldintzak betetzeko orduan aholkatzen eta, azken batean, egoera hori gainditzeko eta etorkizunean beren jarduerari eusteko funtsezkoak izango diren laguntzak eskuratu ahal izatea errazten.

La Diputación Foral, junto con la Cámara de Comercio, SEA, UAGA, Aenkomer y Elkargi, busca así acompañar a las empresas de menor tamaño y con menor capacidad de gestión en la identificación de los apoyos a los que pueden acceder, aconsejarles a la hora de cumplimentar los requisitos y, en definitiva, facilitar que puedan acceder a unos apoyos que serán clave para superar esta situación y mantener su actividad en el futuro.

Guía empresarial ante el COVID-19

Toda la información sobre **ayudas** para **pymes y autónomos de Álava** en un solo lugar